

# 4. DIRU ITURRIAK

Enpresa sortzera goazenean, hasieran inbertsio bat egingo dugu, sortzeko behar ditugun materialak, gailuak eta beharrak bertan sartzen direnak. Hau izango litzateke inbertsioa.

Inbertsioa	Prezioa
Alokairuko fiantza	1000€
Mahaiak	$(125€ \times 5) = 625€$
Aulkiak	$(45€ \times 4) = 180€$
Armairuak	$(100€ \times 4) = 400€$
Ordenagailuak	$(400€ \times 4) = 1600€$
Inpresora	$(125€ \times 4) = 500€$
Bigarren eskuko furgoneta	9000€

## **Guztira= 13.305€**

Inbertsioaren kantitatea hori dela kontuan hartuta, ZEPAko kide bakoitzak diru kantitate berbera jartzea erabaki dugu. Hau da, mailegua eskatu gabe.

$13305/4 = 3326.25€$  jarri beharko genituzke kide bakoitzak gure dirutik.

Bestalde, diru-sarrera nagusia aktiboen salmenta izango da, hau da, dutxak salduz lortuko dugun dirua izango da. Bezeroek diru kopuru bat emango digute eta guk dutxa trukean.

Dutxa modeloaren araberakoa izango da bakoitzaren prezioa (adibidez: sinpleenak gutxiago balioko du konplexuenak baino)

Normalean ordainketa bakarrean egingo dira, baina, diru kopuru batetik aurrera errepikapeneko ordainketa egiteko aukera egongo da, eta norbaitek ordainketa bakarrean egiteko arazoak baditu (beti ere, ohiko bezeroak izanda), negoziatzeko prest egongo gara eta errepikapeneko ordainketa egiteko aukera emango diogu.

Prezioei dagokionez, bi daude, finkoak (aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak) eta dinamikoak (merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak). Gure kasuan, finkorik ez ditugu, dinamikoak dira. Prezio horiek irizpide hauek araberakoak dira

- Merkatu segmentuen araberako prezioa: Mundu guztiarentzako produktua izatea nahi dugunez, ez dugu nahi prezio alturik jarri. Hala ere, merkatu segmentu denentzako ez dira prezio berak izango.  
Adibidez, erakunde publikoentzako (ospitaleentzako edo eskolentzako adibidez) prezio baxuak jarriko ditugu. Eta berdina gertatuko da gaitasun gutxi duten pertsonekin (esaterako, adinekoei prezioak jaitsiko dizkiegu)
- Ezaugarrien araberako prezioa: Kalitatearen araberakoa izango dena (dutxa sinpleenak gutxiago balioko du dutxa konplexuena edo luxuzkoena baino).  
Adibidez, dutxa batzuk kolore desberdina izan ditzakete, beraz, kolore estandarra ez den beste kolore bat nahi izanez gero, prezioa igo egingo litzateke (ez asko).  
Edo, dutxa programatzerako orduan aukera gehiago edo aurrerapen teknologiko gehiago dituena nahi badu, pertsona batek, gehiago ordaindu beharko du.